

Eskutik heldu

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Postalak idatzi izan genizkion elkarri, urtetan, gabonak zoriontzeko. Bere ahotik ikasi genuen “Ran Rober Ran”, eta bazkalondoan berari kontatzen genion “makaloiak” jan genituela, edo soinean genituen panazko galtzak arrosa “fukkksia” kolorekoak zirela. Berak banatzen zigun behi esnea hamaiketako garaian, eta berarekin margotu genuen Pintto erraldoi hura.

Etxeko habiatik lehenengoz irten, eta egunero beste habia bat goxatzen zuen guretzat andereño Mirarik, gure haurtzaroko lehen irakasleak. Eskutik heldu zigun gure munduratzean eman-

dako pauso txikietan balantza eginez gero; malkoak xukatzen, belaunak urratuta beregana jotzen genuenean. Bera dago nire memoriaren oroitzapen zaharrenetako batzuetan, nahiz eta, paradoxikoki, bere oroitzapenek aspaldi hartu zuten lo.

Gerora, ez dakit zenbat irakaslek elikatu ote dituzten nire oroitzapenak, zenbat bidelagun izan ote ditudan bizitzaren plazara ateratzeko entrenamendu horretan; batzuk besteak baino gustukoago, batzuk besteak baino habiako.

Eskolaratzearekin batera, haurren bizitza-zatiek ihes egiten dute gurasoen kontrolpetik, eta hori pasatu beharre-

ko dolu bat da. Beste bat. Horregatik estimatzen ditut hainbeste nire erraie-tako hurrei halako goxotasun, boka-zio eta gertutasunez akonpainamendua egiten dieten profesionalak; gure begiak eta belarriak.

Eta horregatik da halako izugarrikeria, halako ankerkeria eta basakeria, haur xalo bat irakasle abusatzaile batek eskatutako isiltasunaren hari fin baina luzearen gainean funanbulistarena egiten aritu behar izatea, ez erortzeko hark eskutik helduko diola pentsatuz. Inork ez du merezi halako oroitzapenak pilatzetik; ezta abusatzaile nazkagarri baten memoriak ere. •

Duintasuna

Miren AZKARATE
BADIOLA

Pasa dira egun batzuk eta oraindik biharamunarekin nago han bizitutakoagatik. Batzarra baino egun batzuk lehenago hasi ziren urduritasunak eta gaizki lo egiteak, beti gai honekin gertatu izan zaidan moduan. Egun bat lehenago jakin nuen PSEk ere batzarra zuela leku berean ordu berean. Kasualitatea? Ez. Ez dira existitzen.

Otsailaren 15a iritsi zen eta gerturatu ginen Kursaalera. Ertzainak nahi, droneak hegan eta parkinera

sarreran altoa: “Zer zoazte, torturatuen batzarrera?”. Egoera surrealista.

Erraz erori zitekeen probokazioan, baina ez zuten lortu, eta sinistu, hamaika erataria saiatu ziren.

Behin barruan, argazkia itzela zen, oraindik ez dut hitzik topatzen 900 torturatu batera ikusteak nolako zirrara sortu zidan adierazteko. Erraz esaten da: 900 (*bederatziehun*). Zenbat izerdi, oiho, malko eta odol.

Txanponaren beste aldean zenbat besarkada, zenbat maitasun, zenbat irribarre, zenbat begirada konplize.

Goxotasuna, zaintza, harrotasuna. «Ez zaude bakarrik, hemen gaude». Erreparaziorako hasiera ezin politagoa.

Ezin dute esan hau ez zela gertatu, baina kontuz, hau ez zela existitu esaten zutenak egindakoak justifikatzen hasiak dira orain. Egia, aitor-tza eta erreparazioaren bidea luzea izango da, baina hemen gaude torturatuak izan ginen milaka ahots horiek. Bagoaz!

«Garrantzitsua ez da egin ziguten hori, baizik eta egin ziguten harekin egiteko gai garen hori». •